

KANALAK

Gure informazioa instagram bitartez ageriko dugu, gazteen artean gehien erabiltzen den sare soziala delako, honetaz gain ere hemendik galderak erantzuteko prest egongo ginateke, horrela gure bezeroekin erlazio estuago bat sortuz. Beraz, produktuari ospea gure instagram bitartez ematea da irekitako kontu honen helburu nagusietakoa. Honetaz gain, ere web gune bat irekiko dugu, www.easykonpon.com, bertan informazio guztia txertatuko dugu eta behar bada bezeroen galderak eta kexak jasotzeko atal bat utziko genukeen gure sarean.

Honetaz gain gure produktua bi modutan salduko genuke denda fisikoetan eta DHL bitartez. Enpresa honek gurekin akordio bat sinatuko du %10eko irabaziak lortzen eskaera bakoitzean. DHLren web gunearen link bat jarriko dugu gure web gunean enpresa honen informazio lortzeko eta eskaintza bakoitzaren jarraipena egiteko.



Beste alde batetik denda fisikoetan langile bat edo bi jarriko ditugu. Dendariek produktuari buruz informazioa jasoko dute hau saltzerako momentuan bezeroei laguntzeko. Honekin batera gure lehen denda fisikoak Euskal Herrian kokatuko genuke eta gure enpresa aurrera doan heinean Espainiatik zabalduko genuke gure denda katea.

